



# IRISGARRITASUN KOGNITIBOA

Egin bat erronkarekin



Hezkuntza inklusiborako,  
ikasleek ingurunea ulertzeko  
eta ikasketetara heltzeko duten  
eskubidearen alde.

# EGIN BAT IRISGARRITASUN

Adimen edo garapen urritasuna duten ikasleen ikasketarako eta partaidetzarako oztopoak murrizten dituelako.



Ikasteko aukerak eskaintzen dituelako.




Ingurune irisgarriagoak diseinatzeko badiugu, euskarri gutxiago mobilizatu beharko ditugulako.



Ezinbestekoa delako inklusiorako eta bizitza kalitaterako.

Bizitza errazagoa egiten duelako.

Autonomia sustatzen duelako.



# KOGNITIBOAREN ERRONKAREKIN



Irisgarritasuna eskubidea delako, errealitate bilaka dezagun!



Urritasuna duten pertsonen eskubideei buruzko NBERen konbentzioa (2006).

9. artikulua: Irisgarritasuna


Urritasuna duten pertsonak era independentean bizi ahal daitezzen eta bizitzako alderdi guztietan partaidetza osoa izan dezaten, parte diren Estatuak beharrezko neurriak hartuko dituzte, urritasuna duten pertsonen besteen baldintza berberetan hel daitezzen ingurune fisikora, garraira, informaziora eta komunikaziora, eta jendearentzat zabalik dauden edo erabilera publikokoak diren beste zerbitzu eta instalazio batzuetara, hiriguneetan zein landa guneetan.

# ZER DA IRISGARRITASUN KOGNITIBOA?


“Zerbait irisgarria da ikuspegi kognitibotik ulertzeko erraza denean”.



Irisgarritasun Kognitiboak, ulerkorrek edo erraz ulertzekoak diren inguruneek, prozesuek, ondasunek, produktuek, objektuek, zerbitzuek, tresnek, erremintek eta gailuek duten ezaugarria izendatzen du.



ingurune



prozesu




ondasun, produktu eta objektu



zerbitzu




tresna eta erreminta




gailu

Irisgarritasun kognitiboa idatzitako dokumentuei edo testuei buruzkoa denean, Irakurketa Erraza terminoa erabiltzen da.



Irisingarritasun Kognitiboak, pertsonak ingurunea ulertzea eta harekin elkarrekintzan aritzea eskatzen du. Eguneroko jardueretan parte hartzeko aukera ematen du.




Irisingarritasun Kognitiboa ezinbestekoa da adimen edo garapen urritasuna duten ikasleei zuzendutako ikasketa estrategiak garatzeko, eskolan aurkitzen dituzten oztopo gehienak ingurunea ulertzeko zailtasunekin baitaude erlazionatuta.



Irisingarritasun Kognitiboak gogoeta egitea dakar, adimen edo garapen urritasuna duten pertsonen ikasketa errazteko.

# ZE ERRONKA PLANTEATZEN DITU?



Irakasteko **ESTILOA** ALDATZEA.




Haur guztiek berdin  
ikasten dutela  
sineste hori gainditzea.




# ZE ERRONKA PLANTEATZEN DITU?

Pertsona bakoitza behatu,  
nola ikasten eta  
nola ulertzen duen.





Metodologiak,  
irakaskuntzako materialak,  
programak,  
ebaluazio sistemak...  
egokitzea.



ZER EGIN DEZAKEGU?

# 1.-PROFESIONAL IRISGARRIAK IZATEA



Ulermen maila egiaztatu.



Hainbat baliabide erabili.



Elkarren arteko laguntza sustatu.



Haurrek, inguratzen gaituen mundua ulertzen lagunduko dieten profesional irisgarriak behar dituzte.


Eginez erakutsi egiten.




Laneko erritmoak errespetatu.



Berriztatu, oztopoak gainditzeko.



Ikasle guztiak aintzatetsi eta baloratu.



Aurreikusteko modukoa izan eta pazientzia erakutsi.



Akatsaren aurrean jasanbera izan.

Koordinazioa eta lankidetzaz sustatu.

Beste eragile batzuk



Elkarteetako profesionalak



Familiak



Irakasleak



Ikasleak

ZER EGIN DEZAKEGU?

## 2.-ESPAZIO IRISGARRIAGOAK

Ingurunea egituratuta eta ondo erreferentziatuta egon beharko da, ulerkorra izan dadin.

Erabil dezagun WAYFINDINGa, pertsonak inguru fisikoetatik gidatzen dituen eta haien ulermena eta espazioaren esperientzia hobetzen dituen informazio sistema.

Seinale argiak erabili:



Sinboloak



Argiak



Koloreak




Grafikoak




Piktogramak  
eta irudiak



Argazkiak







Lurrean egindako gezien edo aztarnen bitartez norabide egokia adierazi.

ZER EGIN DEZAKEGU?

## 2.-ESPAZIO IRISGARRIAGOAK



Ikasgelan, laneko espazioak bereizteko, koloreak, piktogramak, edo ikasleei egin beharrekoak ulertzen lagunduko dieten beste baliabide batzuk erabili.



Dibertsifikatu lanek eta egin beharrekoak eskaintzen dituzten aukerak, behar guztiei erantzun ahal izateko.




Ikasle bakoitza toki egokienean jarri.

Izan kontuan, baita ere, argiz-  
tapena, temperatura eta zarata.




Ebaluazio  
probak  
egokitu.



Ikasgela  
egituratu  
eta plani-  
fikatu.

Materiala sistema sinpleen bitartez antolatu eta etiketatu.



## ZER EGIN DEZAKEGU?

### 3.- IRAKURKETA ERRAZA ERABILI

Irakurketa Erraza testuak hizkuntza argira eta errazera egokitzea da, errazago ulertzeko.

Jarraibide batzuk:

- Hitz arruntak dituzten esaldi laburrak:



- Testuari laguntzeko irudi simpleak

Neskatoa liburu polita irakurtzen ari da



- Ideia bakarra esaldi bakoitzean.

Posible denean, esaldi batek lerroa beteko du.

*Maria ipuin polita ari da irakurtzen.*



*Maria ipuin po-*

*lita ari da irakur-*



- Letra tamaina handia, Arial tipoa, 14.

- Testuko lerroak ezkerretan justifikatu.



● Ez erabili:

- Gutxi erabiltzen diren hitzak, korapilatsuak eta teknizismoak:

Bihar Euskadin haize indartsua eta euri asko izango dugu.



Bihar ziklogenesi leherkorrak Euskadi hartuko du.



- Ahots pasiboko esaldiak:

irakasleak ohar bat bidaliko dizu.



Oharra irakaslearengandik bidalia izango da.



- Esaldi negatiboak:

Hemen geratu beharko duzu klasea amaitu arte.



Ezin izango zara joan klasea amaitu arte.



- Oso ohikoak ez diren zeinu ortografikoak (&, %, /, ...)

Neskatoa oso liburu polita ari da irakurtzen.



Neskatoa liburu %100 polita/ederra ari da irakurtzen.




ZER EGIN DEZAKEGU?

# 4.-IRISGARRITASUN KOGNITIBOA SUSTATZEKO ESTRATEGIAK




Jarduerak eta materialak ume bakoitzarentzat egokitu behar dira, beraien partaidetza eta ikasketa errazteko.

Aukera edo formatu bat baino gehiago eskaini edukiak lantzeko:




Testuak eta zenbakiak



Marrazkiak eta grafikoak



Audioa eta bideoa



Jolasak eta jarduerak



Jardueren, programen... ordutegia gogorarazten duten ikus-adibideak erabili:

## Astelehena



| 10 - 11           | 11 - 12       | 12 - 1         |
|-------------------|---------------|----------------|
| <b>Jolastokia</b> | <b>Mateak</b> | <b>Margotu</b> |
|                   | $2 + 2 = 4$   |                |




Informazioa era egituratuan eta sekuentzian eskaini. Ideia garrantzitsuak eta garrantzirik ez dutenak bereizi eta gogorarazi behar duten informazio baliotsua zein den jakiteko ikasleentzat baliagarriak izan daitezkeen "gantxoak" bilatu.

## HOBETO IKASTEKO PAUSOAK:

- 1: Klasera joan 
- 2: Galdetu 
- 3: Dena irakurri 

Egitekoak sinplifikatu, beharrezkoak ez diren pausoak kenduz.





Lehentasuna eman autonomia handiagoa bultzatzen duten ikasketei.




Era autonomoan ikasten lagunduko duten estrategiak eta metodologiak bultzatu:

- jarduera laburrak,
- errepikakorrak, baina ez gehiegi,
- azalpen argiak,
- gainbegiratze iraunkorra...



Ikasle guztien parte hartzea bultzatu, beraien indarguneen arabera.








Apunteak aurretik eman.



Egokitutako azterketak egin.



Mapa kontzeptualak egin, edukiak jasotzeko.



# BIBLIOGRAFIA

La accesibilidad en los centros educativos

Francesc Aragall

Ediciones Cinca

(2010)

Guía didáctica Proyecto V.I.D.A.

Bigarren hezkuntzako edo adimen urritasuna duten ikasleentzako irakaskuntza materialak.

Argitaratzailea: FEAPS

(2013)

Información para todos.  
Las reglas europeas para hacer información fácil de leer y comprender

Inclusion Europek argitaratua  
FEAPSein lankidetzan,  
ikasketa iraunkorraren alorreko ekintza Programaren laguntzarekin

(2013)

La accesibilidad cognitiva en los centros educativos.

Guías prácticas de orientaciones para la inclusión educativa bilduma

Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa.

Mercedes Belinchón,  
Silvia Casas,  
Cristina Diez  
eta Javier Tamarit

(2014)

Web Inclusive Education- Guides for schools  
<http://inclusive.tki.org.nz/guides/universal-design-for-learning/>

# FEVAS



Plena  
inclusión  
Euskadi



Adimen edo garapen urritasuna duten pertsonen eskubideekin konpromisoa duen eta familian oinarrituta dagoen elkarte mugimendua gara.

Euskadiko Autonomia Erkidegoan adimen edo garapen urritasuna duten pertsoneri eta beraien familiei zerbitzuak ematen dizkieten 13 erakunde biltzen ditugu.

Apdema, Apnabi-Autismo Bizkaia, Aspace Bizkaia, Aspace Gipuzkoa, Atzegi, Atzegi Tutoretza Fundazioa, Donostiako Goyeneche Fundazioa, Futubide, Gaude, Gautena, Gorabide, Uliazpi eta Usua Tutoretza Fundazioa.

Argitaratzailea:

**FEVAS**

**Plena  
inclusión**  
Euskadi

FEVAS Plena inclusión Euskadi  
Adimen urritasuna duten  
pertsonek aldeko erakundeek  
euskal elkarteak

Laguntzailea:



Colon de Larreategi, 26 beheak C. 48009 Bilbo  
Tfnoa.: 94 421 14 76 • comunicacion@fevas.org  
www.fevas.org

Ilustrazioak: Pernan Goñi

Lege Gordailua: BI-159-2018

